

ZMA

PATXI MARTÍNEZ

AEKko langilea eta Zorrotzako Euskal Txokoko kidea

Imajinatzen
duzu Zorrotza
merkataritzarik
gabe?

Baduzu eskaintzarik
onena Zorrotzatik
irten barik

ZAINDU TOKIKO MERKATARITZA

EROSI AUZOAN!



www.comerciantes-zorrotza.com

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra

The logo is a circular emblem. It features a grid of small dots in various colors (red, yellow, green, blue, and grey) arranged in a pattern that resembles a stylized map of the Basque Country. Below the grid, the text "EUSKARALDIA" is written in a bold, sans-serif font.

EUSKARALDIA

Ekintza kulturalak itzuli dira

sarrera



Zorrotzako herri aldizkaria
76. alea. 2022ko uztaila

f @ZorrotzMorrotz
t @zorrotzmorrotz
e zmorrotz@gmail.com

Argitaratzen du:
Zorrotzako Euskal Txokoa

Erredakzioa:

Ibai Barrios
Ainara García
Igor Gutiérrez
Aitor Marín
Naroa Peña
Iratze Pérez
Zuriñe Vila

Laguntzaileak:

Manu Cobo
Asier Urkiza

Koordinazioa:

Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:

Aitor Marín. (amc diseinua)

Zuzenketak:

Iñigo Ramirez de la Piscina



Bilbao
EUSKAL
KULTURAREN
IRAKASLEA

Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko
udalaren diru-laguntza jasotzen du.

Edukia erantzule bakarra ZM
bera eta kasuan kasu, testuaren
sinatzaileak dira

Joan den maiatzean inauguratu zen ofizialki Zorrotzako parke berria, ordutik Txinbo Parkea deitzen dena, alkattea eta hainbat zinegotzi bertan zirela. Izena Auzo Elkartearen proposamena da, garai batean hezegune horretan bizi ziren txoritxoak oroimenez. Izen bereko xaboi fabrika ere handik oso gertu egon zen urte askoan.

Alkateari gogorarazi genion parke berrian komun publikoak beharrezkoak direla lehenbailehen. Espero dezagun laster egotea.

Maiatzean Alazne López Etxebarriari eskainitako laugarren Memoriala ere ospatu genuen. Gogo handia zegoen pandemiak eragindako bi urteko etenaren ondoren. Aipatzekoa da, beste urte guztietan bezala, arrakasta handia izan zuela,

eta kalitate handiko eta hunkigarritasunez betetako kultur ekitaldiaz gozatu genuela berriro. Hemendik, eskerrak eman nahi dizkiegu eskuzabaltasunez parte hartu zuten artista guztiei, eta, nola ez, antolatzaileei, beren lan bikainagatik, Zorrotzan horrelako ikusizun bat izatea ahalbidetzen baitute. Eskerrik asko guztioi zuen lan onagatik!

Horren harira, aipatu behar da ekainean Zorrotza Gozatu eta Bizi kultur programa zabala ospatu dugula, Zorrotza Eguna gure auzoaren autoafirmazio gisa barne hartzen duena.

Amaitzeko, herri mugimendutik, Zorrotza eta bertako jendearen alde lan egiteko dugun borondate irmoa adierazi nahi dugu beste behin ere.



IZAN ZAITEZ HARPIDEDUN!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mail bat zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora, gaiaren laukian **"harpidetza"** jarri

LASTER
Elektrizitatea
elektronika

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ARGIZTAPENA
- SARE INFORMATIKOAK

TFNO./FAX: 94 442 46 35
LARRIALDIAK: 657 79 57 04
www.electricidadlaster.net
MENDIGAIN ETXALDEA
ZORROTZA 48013

MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalbidea estrada, 5 - atzea
ZORROTZA
48013 BILBO

MADNESS


Tel. 94 441 62 75

RISKO
Burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7
Telefona: 94 441 64 86

Jai-Alai
kafetegia

Abaro estrada, 12
94 490 12 59



Hainbat arazotarako konponbideak eskatu dizkie erakundeei manifestazio batek

ZORROTZ MORROTZ

Ehunka lagunek manifestazioa egin zuten ekainaren 22an, hainbat arazotan erakundeei irtenbideak eskatzeko. Manifestazioa Zazpilanda plazatik abiatu zen Azoka plazan amaitzeko, eta herritarren haserre jaso zuen, FEVEren geltokiaren lurperatzean eta Sader-Profersa lantegi kutsatzailearen leku aldaketan aurrerapausorik ikusten ez dutelako. Herritarren Segurtasuneko arduradu-

nei ere neurriak eskatu zitzaizkien, auzoan izandako azken eraso eta indarkeriaz egin-dako lapurretengatik. Azkenik, osasun-zerbitzu publikoan “eta batez ere lehen arretan” eragiten ari diren murritzaketak etetea aldarrikatu zuen mobilizazioak.

Auzo Elkarteak ardura, irmotasuna, eta adorea eskatu zien bizilagunei, hobekuntzak eta konponbideak aldarrikatzen jarraitzeko.



XXIII. Ipuin Lehiaketaren sariak banatu dira

AITOR MARÍN

Euskal Txokoak urtero antolatzen duen ipuin lehiaketaren sariak banatu berri dira. Epaimahaiak lan handia eta zaila izan du, 144 ipuin jaso baitira guztira. Oinarrietan aipatzen ziren kategoria bakoitzeko 2 sariez gain, epaileek lau aipamen berezi gehitu behar izan dituzte. Hona hemen sarituen izenak:

12 urtetik behera:

- **1. saria:** Enara arce Serrano.
- **2. saria:** Carmen Lucas Couce.
- **Aipamena:** Nathalia Mendiluce Candelo.

DBH eta batxillergoko ikasleak:

- **1. saria:** Ziortza Hernández López.
- **2. saria:** Carolina Rondón Díez.
- **1. Aipamena:** Mónica Gutiérrez Arranz.
- **2. Aipamena:** Irune Bajo Arroyo.
- **3. Aipamena:** Sheila Regado Ferrero.



Trenbideak lurperatzearen proiektua idazteko ADIFI eta Ministerioari azkartasuna exijitzeko eskatu diote Udalari

EH Bilduk ekaineko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko mozio bat aurkeztu du Udalak Adif eta Garraio Ministerioari eska diezaien trenbideak lurperatzeko eraikuntza-proiektua ahalik eta arinen idazteko

ZORROTZ MORROTZ

Bilboko Udala ahalik eta gehien inplika dadin eskatzeko mozio bat erregistratu du EH Bilduk ekainaren 30ean eztabaidatzeko, Zorrotzan trenbideak lurperatzea “premiatzkoa, lehentasunezkoa eta ezinbestekoa delako, eta asko direlako bete ez diren promesak”.

Geltokian egindako agerraldi batean, EH Bilduk azaldu zuen mozio hori aurkeztu zuela Udala prozesu horretan gehiago inplika dadin. «Udalak ezin da mugatu Ministerioak egiten duenaren zain egotera. Ekaina da eta oraindik ez dugu berririk», kritikatu zuen

Jone Goirizelaiak bozeramaile subiranistak. Bere alderdiak otsailean egindako galderei erantzunez, oraindik informazio-azterlana, gainerako izapideekin jarraitu ahal izateko aurretiazko eta ezinbesteko urratsa, jasotzeko zain zegoela erantzun zuen Udal Gobernuak.

Gobernu zentralak eta Bilboko Udalak 2021eko uztailean lurperatzea gauatzeko konpromisoa agertzeko sinatu zuten akordioaren arabera, 2022an eraikuntza-proiektua lizitatu ahal izango litzateke; eta ondoren, 2023an, obrak lizitatu ahal izango lirateke.

Hiru mila sinadura baino gehiago bildu dituzte Udalari jubilatuen egoitzan igogailu bat jartzeko eskatzeko

ZORROTZ MORROTZ

Montevideo hiribideko lokaletarako sarbidea erraztuko duen igogailu bat instalatzeko eskatzen duten 3385 sinadura aurkeztu zituen joan den ekainaren 8an Zorrotzako Jubilatu eta Pentsiodunen Elkarteak Barrutiko Kontseiluaren Osoko Bilkuran. Duela hiru hilabete inguru hasi zen auzoko hainbat lokaletan sinadurak biltzen Elkarteak.

Babes horiek guztiak eskertu nahi izan dituzte pentsiodunek, eta Elkarteak espero du oraingoan Udalak entzungor ez egitea eta igogailua lehenbailehen jartzea; izan ere, sare sozialetan argitaratutako ohar batean adierazi zutenenez, “urte asko dira auzo-mugimenduarekin batera aldarrikapen hau hasi zutenetik”, eta orain arte ez dute jaso era-kundeengandik “aitzakiak baino”.



"Txinbo" izendatu dute 2018an urbanizatutako Landa inguruko parkea

ZORROTZ MORROTZ

Pasa den maiatzean antolatutako ekitaldi batean inauguratu zuen Bilboko Udalak Txinbo parkea. Clara Campoamor eta Renferen trenbidearen artean, eremuak 14.000 metro karratu inguru ditu, eta 2018an urbanizatu zen.

Izen berria barrutiko elkarteekin batera parte-hartze bidezko prozesu batean hautatu dela jakinarazi du Udalak. Eremuan hezegune bat egon zelako antzina, eta hango kanabera-di batean mota horretako txori asko ikusten zirelako hautatu dela izen hau azaldu dute.

Alazne Gogoratzuz Memorial Kulturala arrakastaz itzuli da

CARLOS RODRÍGUEZ

Joan den maiatzaren 28an Alazne Gogoratzuz 4. Memorialak ia 450 pertsona bildu zituen kiroldegian. Bertaratuko bizilagunek ordu eta erdi luzez, maila artistiko handiko eta faktura tekniko oneko ikuskizunaz gozatu ahal izan zuten. Pandemiaren ondorioz bi urteko etenaren ondoren, hainbat berrikuntzarekin iritsi da Memoriala: batez ere zuzendari artistiko berri bat, Mikel del Valle dantzari bilbotarra, Jon Amurizaren ordez.

Hori ez bakarrik, Laguntasuna Merkatarien Elkartearen lankidetzari esker, Aritz Berga-

Txori horietatik hartu zuen izena duela urte batzuk arte egungo parkearen inguruan fabrikatzen zen *Chimbo* xaboi marka ikonikoak. Gaur egun, askoz ere txinbo gutxiago egon arren, oraindik ere ikus daitezke eremu horretan.

Done Mikel plazako lanak hasi dira

Udalak obrak hasi ditu Landan erabili gabe dauden espazioak birgaitzeko. Done Mikel plazan kantxa bi eta pumptrack pista bat erai-kiko da. Proiektu horrek 1.200 euro baino gehiagoko aurrekontua dauka eta zazpi hila-betetan amaitzeko aurreikuspena dago.

raren euskal mitologiari buruzko hitzaldi interesgarria eta Maria Angeles Gayubasen auzoko idazlearen poesia errezitaldia antolatu ziren maiatzaren azken asteetan. Nabarmentzekoa da halaber aurtien lehen aldiz dantzaren mundua ikasleengana hurbildu dela, auzoko hiru ikastetxeetan landutako unitate didaktiko baten bidez.

Memoriala antolatzen duen taldeak dagoe-neko 2023ko edizioa du buruan, 5.a izango dena, hazten jarraitzeko eta gero eta ikuskizun artistiko hobe eskaintzeko ilusioarekin. Dantza eta musikako gala hau 2017an hasi zen, Zorrotzan kalitatezko kultur ikuskizun bat eskaintzeko asmoz; baita Alazne López Etxebarria gogorarazteko ere, 2015ean hil zen dantzari profesionala, 21 urte zituela eta Dortmundeko (Alemania) Ballet Konpainia-ko kide zela.

TXOKO FEMINISTA



Unibertsitate mailan, emakumeek zailtasunak dituzte irakaskuntza eta ikerketa karreren garapenean, beren egonkortzea eta lanbide sustapena bermatzeko gainditu behar dituzten barneko eta kanpoko oztopoak eta lana eta familia uztartzeko beharrak direla eta. Ikasle bezala, graduiko ikasketetan emakumeen presentzia gizona baino handiagoa bada ere, kezkarria da erantzukizuneko postuetan eta STEM karreretan (zientzia, teknologia, ingeniari-tza

eta matematika) duten presentzia eskasa. Hezkuntza segregazioa ikusten da, halaber, gizonen hezkuntzarekin, zaintzarekin eta pertsonen arretarekin lotutako titulazioetan (gizartearen ospe gutxien duten esparruak dira) duten presentzia eskasean. Beharrezkoa da oreka lortzea, erantzunkidetasuna bultzatzeko. Horretarako, genero ikuspegia zeharkakoa bihurtzea irakaskuntzan, ikerketa eta transferentzia eta gizarte konpromisoa dira kontzientziazioa areagotzeko eta diskriminazioak prebenitzeko biderik indartsuenak.

SALAKETA ARGAZKIA

Obrak ala suntsiketa?

2018an Txinbo parkea urbanizatu zenean, portura zihoan trenbide-trazaduraren zati bat bere horretan utzi zen; katenaria farolak integratzeko erabili zen, etab. Laburbilduz, eremuko ondare historikoaren zati bat berrurbanizazioan integratu zen, guztia suntsitu eta berria egin beharrean. Zalantzarik gabe, hirigintza-jarduketa ona izan zen. Ba lau urte eskas geroago, Txinbo parkearen urbanizazioak kai aldera jarraitzean, trenbidearen trazadura suntsitu da, eta, ondorioz, lehen jarduketan hain egoki utzi zen eremuko industria-ondarea birrindu da modu ulertezinean.



LEHEN



ORAIN

ROCKET TAVERN

Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

Lápices

LIBURVENDA

Untziola kalea, 8
ZORROTZA

BAR VENECIA

Espezialitateak:
Kafea, tortilla, tortilla beteak
eta bestelako pintxoak

Abaro estrata 10

AUPA ATHLETIC

ZORROTZA F.C.

13 urte

kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!

// Zorrotzako jendea oso kontzientziatua egotea oso gustuko dut //

GUILLERMO CHACÓN

Jaiotokia: Madril.

Noiztik Zorrotzan: Urtarriletik.

Adina: 43 urte

Landibidea: Musikaria eta pilates irakaslea.

Nahiz eta hona 2022an heldu, Guillermo ia zazpi urtez bizi izan da Bilbon. Bere familiaren zati oso handia Karrantzakoa da, eta gurera egokitzeko orduan horrek "gauzak asko erraztu dituela" aitortu digu.

IBAI BARRIOS

Noiz eta nola heldu zinen Zorrotzara?

Aurtengo urtarrilean heldu nintzen Jon nire lehengusuari esker, bera betidanik bizi izan baita hemen. Aspalditik ezagutzen nuen Zorrotza eta gustuko dut Tetuán nire jatorriaren antzekoa delako, auzo langile bat alegia.

Nahiz eta auzora duela gutxi heldu, ez zara berria gure artean, ezta?

Bai, Bilbon ia 7 urte daramatzat. Bilbo Zaharrean 6 hilabete, eta ondoren Etxebarrin 2021eko abendura arte.

Nolakoa izan da hemengo bizimodura ohitzea?

Oso ona egia esan. Bizkaia txikitatik ezagutzen dut nire ama Karrantzakoa baita, eta betidanik oso gustura sentitu naiz hemen. Nire familiaren zati oso handia hemengoa da eta horrek gauzak asko erraztu ditu. Gainera lana topatzeko orduan zortea izan dut (pandemian izan ezik) eta musika jotzeko jendea ezagutu eta lagun minak aurkitu ditut. Zer gehiago eska daiteke?

Nolakoa da zure egunerokoa?

Uste dut nahiko arrunta dela, kar kar. Goizetan Alonsotegiko inprenta batean lan egiten dut. Astearte eta ostegun arratsaldeetan pilates irakasle lanetan jarduten dut Lutzanan eta Barakaldon. Horrez gain, astelehen eta ostiraletan entrenatu eta musika talde batekin baxua jotzen dut. Egoeraren arabera gauza batzuk alda daitezke baina ia egunero musika instrumentuarekin praktikatzen saiatzen naiz.

Dena den, Wormed zure betiko musika taldea Madrilgoa da...

Bai, berez Madrilgoak gara baina gaur egun egoera nahiko konplikatua da taldekideok hiri desberdinetan bizi garelako. Bakoitzak bere aldetik entsaiatu behar du eta hori nahiko aspergarria da. Dena den, hilabeteetan behin elkartzen gara praktikatzeko. Horretaz aparte, sarritan elkar ikusten dugu harremana mantentzea garrantzitsua baita. Bizimodu hau lanarekin tartekatzea oso zaila da, kontzertuak emateko oporrak hartu eta lana albo batean utzi behar duzulako. Ba-

lantza batean gustukoen duzuna aukeratu eta nahiz eta zaila izan, merezi duen zerbait da. Ez nuke ezer aldatuko.

Zein da hemen gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?

Eguneroko jarduera dela eta ez dut auzoan denbora askorik pasatzen. Ez dut ezer txarrik ikusten aldapak izan ezik, kar kar. Zerbait aipatzeagatik aparkaleku gutxi daudela esango nuke, batez ere ordu zehatz batzuetan. Auzoa gehiago ezagutu nahi dut, Zorrotzako jaiak ezagutu... Korrika kulturean parte hartzeko aukera izan nuen eta oso positiboa iruditu zitzaidan eta oso ondo pasatu nuen. Esperientzia harrigarria! Jendea mugitzen da eta oso kontzientziatua egotea gustuko dut.

Euskararekiko jarrera ona ere baduzu. Ikastera ausartuko zinateke?

Oso gustuko dudana hizkuntza da, benetan. Iaz hilabete batzuk eman nituen ikasten eta A2 maila lortzera heldu nintzen. Arrazoi desberdinak direla eta ikasteari utzi behar izan nion, baina jarraitzeko asmoa daukat. Nire lehengusuarekin eta hainbat lagunekin praktikatzeko zortea daukat, Zorrotzan ere bai. Espero dut hurrengo elkarriketa euskeran hutsean erantzuteko gai izatea!

Madrilera noizbehinka joaten zara? Bertara itzultzeko asmoa duzu?

Sarritan joaten naiz familia eta lagunak ikustera, egia esan nahiko nukeena baino gutxiagotan asteburu askotan kontzertuak izaten ditudalako. Dena den, beraiek ere etortzen dira sarri bisitan, beraz ondo.



Nire asmoa hemen geratzeta da, Zorrotza eta Bilbo oso gustuko ditudalako eta hemen pozik bizi naizelako. Gainera Madrileko bizimoduarekin alderatuz kasik konturatu gabe estresik gabe bizitzea zer den ikasi dut! Bertara itzultzen naizenean badakit nire lekua hemen dagoela.



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefonoa: 94 442 17 12



*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu bitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es

Zahar-egoitzako langileek kanpaina bat abiatu dute beren lan-baldintzak eta egoiliarren bizi-baldintzak hobetzeko

Lan-baldintzengatik eta egoiliarren bizi-baldintzak okertzen ari direlako kezkatuta, IMQ Igorco Zorrozgoiti zahar egoitzako enpresa-batzordeak 1.500 babes-sinadura inguru bildu ditu bi astetan. Gainera, bilera bat eskatu diete egoitzako arduradunei, langile gehiago kontratatzeko proposamen bat aurkezteko. Haiekin harremanetan jartzen saiatu garen arren, zahar-egoitzako zuzendaritzak ez die gure deiei kasurik egin eta ezin izan dugu haien iritzia jaso.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: AITOR MARÍN

Covid19aren pandemiak kontuan hartu beharreko hainbat ikasgai utzi dizkigu, zalantzarik gabe. Horietako bat da bere garaian “funtsezkoak” jo genituen langileak balioan jarri behar ditugula. Funtsezko kolektibo horietako bat, zahar-egoitzetako langileena da. “Agerian geratu da gure lana funtsezkoa dela”, argudiatu dute IMQ Igorco Zorrozgoiti egoitzako enpresa-batzordeko langileek, eta kanpaina bat abiatu dute (momentuz, sinadurak bilduz soilik), ohartarazteko beren lan-baldintzak eta egoiliarren bizi-baldintzak okertzen ari direla.

Egoiliarren profila aldatu dela azaltzen du langileen ordezkaritzak. Langile kopuru berearekin jarraitzen da zahar-egoitzan, nahiz eta “egoiliarrek arreta gehiago behar gaur egun”. Premiaren arabera handitu beharko litzatekeela uste du LAB, ELA eta CGT sindikatuek osatzen duten enpresa-batzordeak, eta pertsonal gehiago kontratatzeko propo-

samen bat bota dio IMQ Igorco Zorrozgoitiko zuzendaritzari. Eskaera konkrituak ditu proposamen honek, egoitzako beharrak aztertu ondoren: solairu bakoitzeko hiru laguntzaile gehiago goizez eta arratsalde; beste bi gauko txandarako; eta solairuetan laguntzeko, 4 orduko txandan errefortzuko hiru langile gehiago goizetan, eta beste bat arratsaldean. Erizainen falta ere nabaria da langileen ordezkaritzaren ustez: bi erizain gehiago eta erizain-laguntzaile bat gehiago goizetarako, erizain eta erizain laguntzaile bana arratsaldeetarako, eta beste erizain bat gauaz aritzeko jasotzen du zuzendaritzari egindako proposamenak. Bestalde, animazio soziokulturaleko teknikari bakarra dago orain, eta langileen proposamenak beste bat goizez eta berri bat arratsaldeetarako eskatzen du lanaldi osoan. Era berean, langileen eskariak jasotzen du psikologo eta fisioterapeuta bi goizez aritzeko eta bat arratsaldeaz aritzeko (orain bana baino ez dago, psikologoak gainera goiz erdia lan eginda baino ez).

Ez da lehen aldia langileek beren lan-baldintza kaskarrez ohartarazten dutena. Joan den irailean berrehun lagun inguru bildu zituen Azoka parkean LABek deitutako eta auzoko beste elkarte batzuen babesa izan zuen elkarretaratze batek. Egoera okertzen joan da geroztik, enpresa-batzordearen arabera: “Eszedentzia gehiago egon ziren, baina langile berriei ez zitzaizkien aurreko kontratatuek zituzten baldintzak mantendu, eta, gainera, lan-errefortzuak ugaltu ziren egoiliarren kopuruak gora egon zuen bitartean”.

Sinadura bilketa

Martxoan, lan-egutegiaren konturako gatazka baten ondoren, enpresa-batzordeak erabaki zuen premiazkoa zela “zerbait egitea”, laguntzaileen aurkako kexak etengabeak baitziren. Hala, Aste Santuaren ondoren, sinadurak biltzeko kanpaina bat egitea erabaki zuten, “baliagarria izango zen zalantza handiz”. Gaur egun, aitortu dute bi astetan sinatu duen jende kopuruak harrituta utzi dituela, sinadurak biltzeko euskarriak utzi dituzten denda eta ostalaritzako lokal batzuen laguntza baino ez izanda. Sindikatuetako ordezkarien esanetan, ekimen horri esker jakin dute senide askok laguntzaileen eta erizainen ratioak oso txikiak direla: “Ezin zuten sinetsi gauean erizainik ez zegoenik edo 140 egoiliarrentzat 3 pertsona baino ez zeudenik lanean”. Gainera, sinadura bilketa horri esker, jende asko hurbildu da langileengana galdetzerara, eta “senideak ere animatu dira langileen aldarrikapenak zabaltzerara”.

Erreportaje hau idazteko unean, ordezkari-tza sindikalak egoitzaren arduradunarekin



bilera eskatu berria zuen, eta Sergio Murillo Gizarte Ekintzako foru diputatuari ere bilera-eskaera egin nahi zioten. Oraingoz ez da bestelako mobilizaziorik planteatu, eta ez dute lanuzte edo grebarik aurreikusten, baina gertatzen denaren arabera, aukera hori ez dute baztertzen.

Bestalde, behin baino gehiagotan saiatu gara egoitzako zuzendaritzarekin harremanetan jartzen, mandatua utziz eta egoera honi buruzko haien iritzia jaso nahi genuela azalduz, baina Igorco Zorroztgoitiko arduradun batek ere ez du aldizkari honen deia itzuli.



ZORROTZA HERRIGINTZAN



ZORROTZA BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 465 46 15
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)

PATXI MARTÍNEZ

AEKko langilea eta
Zorrotzako Euskal Txokoko kidea

// Korrikako lekukoa estreinakoz eramatea hunkigarria izan da //

Bere izena AEKrekin lotuta duen pertsona bat auzoan bada, hori dugu Patxi. Gazte-gaztetatik euskaldundu eta bere lana eta militantzia euskaingintzari eskaini dizkio. Berrogeita hamar urte bete berri dituela, Korrikako lekukoa eraman du estreinakoz aurtan. Anekdotak horri aitzakia hartuz elkarrizketa bat eskatu diogu.

TESTUA: IGOR GUTIERREZ
ARGAZKIAK: AITOR MARIN



Auzoan “Patxi AEK” goitizenez ezaguna zara. Noiz sartu zinen AEKñ?

Hamabost urterekin ikasle sartu nintzen Zorrotzako AEKñ, 1987an, modu bitxi batean gainera. Nire anaiak matrikula eginda zeukan baina ikastaroa hasi baino astebete lehenago Burgosen lana atera zitzaion eta bere plaza eskaini zidan. Garai hartan ikasleak hartzeko gutxieneko adina 16 urtekoa zen baina nire kasuan salbuespena egin zuten, hori bai, matrikula anaiaren izenean egonda. Ikaslerik gazteena nintzen. Lehenengo mailatik hasi nintzen, izan ere Salesianos eskolan A ereduari ikasitakoa nintzen eta, nahiz eta euskara ikasgai eduki, nire maila oso-oso oinarritzakoa zen, ahozkoan batez ere.

Nolakoa zen garai haietan AEKñ ikastea?

Eskolak Fray Juan ikastetxean ematen ziren, euskaltegirik ez zegoelako. Gau-eskolak ziren, zortzietatik hamarretara, ikasle gehienak lanetik atera eta gero. Egutero, klasetik ateratzean pote bat hartzeko ohitura zegoen, eta orduan mintza-praktika ederra egiten genuen. Motibazio handia zegoen euskara ikasteko, gure hizkuntza berreskuratzeko mugimendua pil-pilean baitzegoen. Artean, auzoko bi eskoletan A ereduari zegoen eta Zorrotza Ikastola kooperatiba sortu berria zen.

Eta beraz, euskara ikasten jarraitu zenuen...

Bai, oso giro ona zegoen eta gazte-gaztea izanik helduekin ibiltzea oso erakargarria suertatzen zitzaidan. Gainera, adin horrekin politizatzen hasi nintzen eta euskara ikasteko grina nigan handitzen joan zen, hemen goa nintzelako, gure hizkuntza zelako... Gaur egun asko aldatu da euskara ikasteko motibazioa, batez ere jende gaztearengan, garraiak ere aldatu direnez gero.

Nola hasi zinen irakasle lanetan?

Azken mailan ikasle nenbilenean, guraso batzuek AEKra jo zuten euren umeentzako klase eske. Eta AEKk 16 urtetik gorako ikasleekin bakarrik lan egiten zuenez, talde horiek azken mailako ikasleoi eskaini zizkiguten. AEKk Soka kalean zeukan lokal txikiari ematen ziren eskolak. Gerora, euskaltegiko azken urratsa amaituta, glotodidaktika ikastaroa egin nuen eta ondoren hasi nintzen AEKñ helduei eskolak ematen, aldi berean Adminstrazio Kudeaketa (Lanbide




“**Motibazio handia genuen euskara ikasteko, hemengoak ginelako eta gure hizkuntza berreskuratu nahi genuelako**”

Hetiketa) ikasten ari nintzela. Eskolak emateaz gain, euskaltegirako arduradun lanak ere betetzen nituen: matrikulazioak, taldeen eraketa, diru-kontuak...

Ez zizueten inolako titulu ofizialik eskatzen irakasle izateko?

Garai hartan, HABE [Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea] euskaltegiak homologatzeko prozesuan murgilduta zebilen eta Zorrotzako homologatu barik zegoen, Bilboko gehienak bezalaxe. Horregatik eskolak eman ahal izan nituen, titulazio ofizialik gabe. Beranduago bai, homologazio prozesuan HABEren hiru urteko formakuntza egin nuen.



“Euskaltegiko ikasle eta hurbileko lagunok “Zorrotzako Izenbarik Mintzataldea” sortu genuen, auzoan euskararen erabilera bultzatzeko

Handik gutxira Zorrotzako AEK utzi eta Bilbora joan zinen, zergatik?

Tira, ez zen berez horrela gertatu. Zorrotzan nenbilela, 1994an, Bilboko kontabilitate-arduradunaren laguntzaile lanean hasi nintzen. Eta beranduago, 2000. urtean, oraingo euskaltegia irekitzean, Zorrotzako AEKko arduradun izateari utzi nion, baina talde baten irakasle izaten jarraitu nuen. Izan ere, Bilbotik AIZU aldzikarirako kudeaketa administratiboa eramatea eskaini zidaten: langileen kudeaketa, iragarkiena... Goizez bost ordu ematen nituen Bilbon zeregin horietan eta arratsaldez, berriz, klaseak Zorrotzan ematen. Kontua da oso denbora gutxi eman nuela bi lekuetako lana uztartzen, zeren eta Garzon epailearen 18/98+ auzia zela eta, Bilbon kudeaketa lana biderkatu egin zen eta berehala dedikazio osoa eskatu zidaten.

Zer suposatu zuen 18/98+ auziak AEKren-tzat?

Garzonek hainbat euskal erakunderen kontra burututako auzia zen, dena ETA zelako aitzakiarekin. Tartean, AEK ere sartu zuten. Horren eraginez, Madriletik administratzaile judiziala jarri ziguten, gure kontratazioak, diru sarrera eta irteera guztiak

eta abar kontrolatu eta onartu behar zituen. Horrek AEKren lana izugarri konplikatu zuen eta langile gehiagoren beharra ekarri zuen. Era berean, beste ondorioetako bat AEKren barne-egituraren zentralizazioa izan zen, auziak eragindako egoera ekonomikoa-ri aurre egiteko asmoz. Geroztik, Bilbotik egiten dugu Euskal Herri osoko kudeaketa eta horregatik Bilboko bulegoan lanean geratu naiz ni.

Zorrotzan lan egiteari utzi zenion baina auzoko euskalgintzan jarraitu zenuen Euskal Txokoko kide gisa, ezta?

Hala da, 1991an, euskaltegiko ikasle eta hurbileko lagunok, “Zorrotzako Izenbarik Mintzataldea” sortu genuen auzoan euskararen erabilera bultzatzeko. Mendi-martxak, txangoak, jaiak... Denetara joaten ginen, kontua elkartzea eta euskaraz egitea zen, gaur egungo Berbalagun taldeen antzera.

Izenbarik Mintzataldea ala Euskal Txokoa?

Hasieran mintzatalde bezala funtzionatzen genuen baina laster Bilboko hainbat auzotan euskal txokoak izeneko kultur batzordeak zirela konturatu ginen. Udalak apenas gauzatzen zuen euskarazko kultur jarduerarik eta auzoetako batzorde horietan la-

// Jendetza izugarria egon da aurtengo Korrikan auzoan //

Aurtengo Korrikan lekukoa estreinakoz eraman duzu, nola bizi izan duzu esperientzia hori?

Hunkituta, Askabide elkarteko kideek aukeratu nindutelako. Gainera nire 50. urtebetetzearekin batera izan da eta AEKko langileen artean bada tradizio bat berrogeita hamar urte egitean lekukoa eramateko, beraz...

Zer nolako lanak egiten dituzu auzoko Korriketan?

Kilometroen banaketa, lekukoaren aldaketa puntuen zehaztea eta Korrika antolakunde orokorrarekin koordinatzea, batik bat.

Zer desberdintasun aipatuko zenuke lehengo eta oraingo Korriken artean?

Orain instituzioek eta komunikabideek (ETBk batez ere) onartu eta bere gain hartu dutela, lehen ez bezala. Hori euskararentzat oso onuragarria da.

Zer iruditu zaizu auzoaren partaidetza aurtengoa?

Jendetza izugarria egon da, ez nuen hainbeste espero. Ea markari eusten diogun hurrengo Korriketan! Eta ea aurtengo Euskaraldian ere partaidetza zabala lortzen dugun!



gatzen zuen berauek antolatzeko ekimena, diruz lagunduta. Hala, “Zorrotzako Euskal Txokoa” proiektua aurkeztu genuen eta horrelaxe dirulaguntza eder batekin hasi ginen Zorrotzan euskarazko kultur egitarau oparoa eskaintzen. Denboraren poderioz, dirulaguntzak murrizten joan dira, Udalak euskaraz gero eta jarduera gehiago antolatzearekin batera. Gaur egun, Euskal Txoko izena darabilgun arren, elkartearen erregistroan Zorrotzako Izenbarik Mintzataldea izaten jarraitzen dugu.

Zorrotz Morrotz aldizkari hau berau Euskal Txokotik jaio zen...

Bai, hori 1995ean izan zen. Nik ez nuen aldizkariaren sorreran parte hartu, Bilboko lanak ez zidalako denborarik uzten. Bittor Rueda eta Manu Cobo bezalako kideek bultzatu zuten Zorrotz Morrotzen sorrera eta Soka kaleko lokalean elkartzen ziren. Laster proiektu horrek bere bidea hartu zuen, Euskal Txokoko funtzionamendu orokorre-tik aparte, baina hala ere, lotura hori ez da sekula galdu.

ehbildu

**egiteko
beste
modu bat**



ASKABIDE
kultur elkartea
Zorrotza





AGENDA



Irailak 16 ostirala

ESZENA KALERA 2022

19:00 Azoka parkean.

Antzerkia:

DIKOTHOMIA CÍA: “[e. go]”

Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko hurrengo agendan (urria-azaroa) iragartzeko, **zmorrotz@gmail.com** helbidera idatzi irailaren 10a baino lehen.

egunean behin

www

**Egunean
behin jolasa
berrikuntzekin
itzuliko da irailean**

<https://eguneanbehin.eus/>

Hamargarren denboraldiari uda ostean emango dio hasiera Egunean Behin jolasak. Izan ere, jokoaren egilea den Codesyntax enpresak “aplikazioak berrikuntza batzuk merezi zituela” adierazi du. Hori dela eta, uda bitartean berrikuntza horietarako tartea hartu eta Android eta iOS bertsioetan indarberrituta itzultzea espero du.



Ez erran inori

Maddi Ane Txoperena Iribarren

Elkar. 2022. 140 orrialde.




Haurra zela sexu-abusu bat pairatu zuen Lidek etxean. Ger-takaria memoriaren zoko batean erdi baztertua eduki du urtetan, baina gaztaroan, trumilka datoz-kio irudiak gogora. Oroitzapene-tik askatu nahian, sexura joko du ihesbide bila, drogara, plazerera, sorgortasunera... Baina Piztia hor da beti.

Gai mingarria hautatu du Maddi Ane Txoperenak bigarren eleberria ontzeko, sarritan ezkutuan gorde nahi izan dena, baina mina sufritu duenak ezin ahortzi, isiltasunaren bidez ezin gizartearen zauriak itxi. Kontaketarako trebezia eta hizkuntzaren menderatzeaz gain, gaiaren gaineko eza-gutza sakona eta sentiberatasun fina erakusten dizkigu egileak.



DENA: “Zure mugadun hutsune”

(Bonberenea ekintzak) 2022



Ondarrutik datorren hirukote gaztearen bigarren estudioko lana dugu honako hau. Bere garaian euren es-treinako diskaren inguruan mintzatu eta, kontuan hartu-ta momentu horretan 15-17 urte bitarteko adina zutela, ezusteko handia hartu genuen. Ia bi urte geroago “Zure mugadun hutsune” honekin eskemak apur-tzera datoz.

9 abesti bata bestearen atzetik atsedetik gabe. Hain gazte baina era berean hain heldu euren est-i-loa eta gauzak egiteko moduari erreparatuz. Euskal rock klasikoaren esparruan ezin kokatu baina halere azken boladan euren lana argitaratu duen Tolosako Bonberenea gaztetxeak kudeatzen duen Bonberenea Ekintzak zigiluaren pean dauden taldeetaz oso ger-tutik. Ez ditut berauek aipatuko, interesa duenaren lana baita. Ez da entzule mainstream bati zuzendu-riko musika estiloa baina gaurko gure protagonistek kalitatea sobera daukate.

Diskara bueltatuz, grabaketa Bonberenean ber-tan dagoen estudioan burutu dute Karlos Osinaga “Txap” ekoizle eta musikari ezagunarekin. Gomen-dagarriak bai audioa zein lana aurkezteko argitara-tutako pare bat bideoklip. Ea laster euren zuzeneko ikusgarriaz gozatzeko aukera suertatzen den!

IBAI BARRIOS



PINTXOTAN

Zailtasun maila: Erraza.

Prezioa: 10 euro.

Osagaiak: Oilasko garbi bat, gatza, piperbeltza, ardo zuria, ura eta garagardoa.

Labea 180 gradutan aurreberotzen da. Oilaskoari gatza eta piperra botatzen zaizkio, eta litro laurden ur, litro laurden ardo zuri eta litro erdi garagardoz osatutako nahasketa batekin suetzitu behar da hamar minuturik behin, lehortzen utzi gabe, ordu eta erdiz. Denbora hori igarota, labea amatatuko dugu eta 10 minutuz jalkitzen utziko dugu. Zatituta eta herriko piperrekin eta patata frijiturekin batera zerbitzatzea gomendatzen dugu.



ROCKET TAVERN

Ordutegia:

Astelehenetik ostegunera:

6:00etatik 23:30era

Ostiral eta larunbatetan:

7:00etatik 1:00era

Igandeetan: 7:00etatik

23:30era

Frai Juan, 8.

Tel. 94 655 68 98



Santer
& BAR
SAKAK

Afariak ostiral
eta larunbatetan

Etzeko berezitasuna:
katxopoa.

Telefona: 944 415 416
Zorrotzabaso, 13
ZAZPI LANDA

Regalos
Omega
oparidenda

Frai Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza

94 482 03 66

www.omegadetalles.com



Zure zain gaituzu
Zalbidea estratako 13an.

CROSS TRAINING
ENTRENAMENDU FUNTZIONALA
TXIKICROSS

Deitu 623 106 531 telefonora



cafe txinbo

Espezialitateak:

Tapak eta errazioak

Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74



Omega tailerrak

Tailer hauek 1928 urtean ireki ebazan ateak eta 1975.nean bota ebiezan, eremu horretan etxebizitzak eraikitzeko, gaur egun omega "sagarra" ezizenegaz esagutzen dogune.

MAQUINARIA MUESTRIERO DE LA ECONOMIA ESPA

Teléfono 12263

TALLERES "OMEGA" S. A.

Gran Fábrica de Maquinaria de Elevación y Construcciones Mecánicas

OFICINAS: Marqués del Puerto, 11 **BILBAO** Apartado 4

CONSTRUCCION DE GRUAS DE VAPOR Y ELECTRICAS
CUCHARAS MECANICAS PARA LA DESCARGA DE CARBON Y ARENA
CALDERERIA - FORJA - FUNDICION

Poleas diferenciales "OMEGA" de triple engrasaje. freno de seguridad automático y engranajes protegidos.

Poleas diferenciales. Del tipo de sencilla maniobra.

POLEAS DIFERENCIALES Tipo OMICRON

GARANTIA

SEGURIDAD

con el 50 % de sobrecarga

REFERENCIAS DE PRIMER ORDEN EN TODA ESPAÑA

www.todocotecion.net

MANU COBO

Zorrotzakotailorretatik lekuko hartute, bere jardueraren ardatzak honako hauek izan ziran: Jasotzeko makineriaren eta transporten eraikuntza eta metalezko eraikuntzak.

ZEUKO enpresa, garabietan, jasotze-sistemetan eta makineria berezian espezializatutako ingeniari-tza, bi hamarkadatarako ibilbidea dauena, baina berrogeita hamarrek hamarkadan garapen industrialak gidatu ebien bost enpresaren aurreko tradizioa jasotzen dauena: Zorrotza, Elyma, Urbasa, Krug eta Omega. Bere lehen letrek konpainiaren izena osatzen dabe, eta bere jarduerak edukiontzien terminaletan eta industria astunean zerbitzuak ematera bideratuta dau, baita beste sektore batzuetan ere, hala nola ontzioletan eta zentral nuklearretan.

Badakite zertaz ari diran. ZEUKOk, Bizkaiko industria siderurgikoaren eta jaso-tzearen ondorengoak, 1957an Euskalduna ontzioletek eskatuta egindako Carola garabi enblematikoaren jatorrizko planoak dekoz. Era berean, Zorrotzakotailerre-k, Zeuko sortu eban enpresetako batek, Bizkaiko zubi esekiaren eraikuntzan parte hartu eban 1890ean.



TALLERES "OMEGA" - 1963

FABRICACION NACIONAL

ORIGINA: MARQUES DEL PUERTO N.º 11
TELEGRAMAS Y TELEFONEMAS:
OMEGA - BILBAO
TELEFONO NUMERO 12.263

BILBAO

"OMEGA"

S.A.

MAQUINARIA DE ELEVACION

Iragar zaitez

ZM

ZORROTZ MORROTZ
aldizkarian!

Euskara sustatu
Zorrotzan!

Tarifak eta informazioa:
zmorrotz@gmail.com

STAZ
OKINDEGIAK

Zorrotzakotailerea

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepidea, 34
Tfn. 94 441 09 71
Zorrotza - 48013 BILBO

Herrik sortu ziñalako

A sko izan dira Athletic zer den azaltzeko orduan erlijiora jo dutenak, zerbaitengatik darama-eta gure taldearen zelaiak santu izena, are, zerikusia ere izango du zelai horri berari zaletuek jarritako ezizena katedrala izateak. Azaldu ezinezko sentimendua, hitz soilez ezin deskribatu daitekeen hunkidura sakona. Besteek ulertzen ez duten izaera duen kluba omen da Athletic, bakarra munduan, Aste Nagusia bezala (tira, ez naiz ni joera garbi samar bat dakusan bakarra, ezta?). Bereizitasunetik bereizkeriara tarte txikia dago, jakina denez, baina beste baterako utziko dugu hori. Irakurleak jakingo du azkenaldian zoro-haizea dabilela klubaren inguruan, hauteskunde santuak (touché) direla-eta. Hortxe ari dira alde bateko zein besteko parrokiakoak nor bere aldera tira, norbere artzainari bidea lautuz, formula magikoak eskainiz bazkidea liluratu nahian dabilatzala, amuak bozkak arrantzatzeko, sarri ke hutsezkoak diren amuak. Zalaparta mediatiko eta deklarazio gurutzatuen anabasaren erdian atentzioa eman didan gauzaren bat edo



ASIER URKIZA

“**San Mameseko palkoan ez ote da beste zelaien gisako negozioirik egiten? Bakarrak eta bakanak eta paregabeak gara horretan? Horretan ere bai? Hautagaiei begiratzeari besterik ez dago, Athleticen izandako presidente guztiei.**

beste arrantzatu dut nik, dena dela.

Berria egunkarian, esaterako, elkarrizketa egin diete hiru hautagaiei. Elkarrizketa ona, nire irudiko, galde-erantzun laburretakoa, itura doazen itaunez osatutakoa. Bazarren galdera ezin zoliago bat, hala zioena: “Argi dago ordu asko eskaini dizkiozula Athletici. Baina zaleek jakin gura dute zergatik daukazu horrenbesteko interesa Athleticen presidente izateko. Izan ere, ez duzu soldatarik izango, zure on-

darea jokoan jarriko duzu, denbora asko kenduko dizu...”. Hirurek jo dute bide bertsutik erantzunerako, besteak beste, pasioa, ardura edo ametsa bezalakoak aipatuz. Ezin uka poztekoa dela apatiak eta ekintza ezak ezaugarritzen duen gizarte honetan gizon ondradu hauek zergatik eta ardura hutsagatik esku-hartu nahi izatea, klub historiko baten etorkizunarekiko kezka haratarata. Idazteak berak barregura ematen du, egiari zor.

Egungo futbolak gutxi du kirolek eta asko negozioitik, Pernandoren egia da hori. Eta norbaitek uste al du Athletic desberdina dela? San Mameseko palkoan ez ote da beste zelaien gisako negozioirik egiten? Bakarrak eta bakanak eta paregabeak gara horretan? Horretan ere bai? Hautagaiei begiratzeari besterik ez dago, Athleticek izandako presidente guztiei. Zeinek utz dezake pasatzen Bizkaiko lobby handienetako bat zuzentzeko aukera, nork egingo dio uko ohoreari? Athleticek naiz, sinetsiko ez baduzue ere, eta jakitun naiz beste taldeen egoera ez dela hobe, enpresak direla asko, edozein dirudun-diruzalek erosi eta nahierara molda ditzaketenak. Baina, gurera ekarrita, herrik sortu ei zenak behintzat ez dezala herria ergeltzat hartu.



Enpresaren irabaziak langile eta egoiliarren ongizatearen ginetik

Enpresaren balizko errepresaliak ekiditeko, bere identitatea ezkutuan gorde nahi izan duen IMQ Igorco Zorrogoiti langile baten eskutitza jaso dugu Zorrotz Morrotzen Bere nahia errespetatzeko, "Langile anonimoaren" sinadurapean doa artikulu hau. Hona hemen bere idatzia:



LANGILE ANONIMOA
IMQ Igorco Zorrogoiti
zahr-egoitzako langilea

“Egoiliarren bizi-baldintzak eta gure lan baldintzak hobetzeko, pertsonal gehiago guztiz beharrezkoa da.

Gure lana bokaziozkoa dela diote. Baina bokazioari eutsi al dakioke lanean hasten garenean bakoitzean antsietateak hartzen bagaitu?

Gure lan karga eta erritimoa etengabeak eta geldiezinak dira. Egoitza honetako langile guztiok (gerokultoreok, erizainok, administrariok, garbitzaileok, eguneko zentroko langileok...) egoera lazgarria sufritzen dugu.

Adin nagusiko pertsonen egiten dugu lan, eta egoiliar gehienak mende-kotasun handikoak dira. Haiekin mereziko luke ten moduko hartu-eman duinik ez izateak erruduntasuna sortzen digu. Izan ere, haien eskari, beharri-za eta minari gustatuko litzaikekeen baino denbora eta baliabide gutxiagorekin erantzuten diegu.

Eta zergatik gertatzen da hori? Ba argi eta garbi esan beharra dago: langile nahikorik ez dagoelako. Gogoratu beharra dago IMQ Igorco Zorrogoiti enpresak Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiaren oniritziarekin egiten dituela aipatutako zaintza-lan hauek.

Irmoki salatu nahi dugu enpresaren irabaziak egoitzako egoiliarren bizi baldintzen eta langileen ongizatearen ginetik daudela, egoera gogor hau apaintzen saiatzen diren arren (eta zoritxarrez, askotan lortu ere bai).

Gure eskariei muzin egiten dietenez, egoiliar, senide eta langileok sinadura bilketa bati ekin diogu. Horren bidez adinekoen egoitzen eredu hori onartzen ez dugula adierazi nahi dugu eta halaber egoiliarren bizi-baldintzak eta gure lan baldintzak hobetu daitezen neurriak eskatu nahi ditugu. Pertsonal gehiago beharrezkoa da. Azken finean, pertsonal gehiago zerbitzu hobea eskaintzeko bide bakarra da.



Vía gráfica

viagraficazorrotza@gmail.com

Disenya



ESKAINTZA PROGRESIBOETAN

ARMAZOIA + KRISTALAK GOI-GAMAKOAK

265€

Sustapena indarrean + 4,00 esferako eta ~2,00 zilindroko arteko graduazioetarako

RPS: 213/18

ibarraeta luxury OPTICA



Sara

Autobus publikoen erabiltzeak garenok, bidaia gehiegi luzatu zaigula uste dut.



Sandra

Kale jendetsuetarako ondo ikusten dut, baina oinezkoen igarotze gutxiko errepideetan, ez diot zentzu handirik ikusten.

IRATZE PÉREZ

30 km/orduko abiadura muga Bilbon.

Beharrezkoa da?
Zer deritzozu?



Iñigo

Errepide-tarte eta ordutegi batzuetan neurri zentzugabea iruditzen zait, trafikoa moteltzen baitu.



Iker

Zorrotzatik Bilbora heltzea eta Bilbo zeharkatzea oso astuna egiten da, batez ere errepidetik beste inor ez doan momentuetan.



Sara

Semaforo asko dauden kaleetan ondo daramat, baina Basurtuko errepidean muga errespetatzea asko kostatzen zait.



**FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA**

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tlfno. 94 441 61 46



Pintxo askotarikoak, hamburgesak eta sandwichak
Bazkariak eta afixiak (erreserbatu behar da)
Ardo onak, konbinatu gozoak, Futbola, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao



▶ www.bilbaoeuskaraz.eus

**iKasi
Mi Kasi!**

**0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe**

Pinadia etbaldea, 6. 48013, Zorrotza. Bilbo
 ☎ 94 442 48 75 • ☎ 94 442 48 75
 ✉ sietecampas@gmail.com

Ikastalde etbaldea, 12. 48013, Zorrotza. Bilbo
 ☎ 94 442 00 21 • ☎ 94 442 00 21
 ✉ 014159aa@hezkuntza.net

San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza. Bilbo
 ☎ 94 428 01 36
 ☎ 94 428 01 37
 ✉ 015078aa@hezkuntza.net
www.jeszorrotzabhi.hezkuntza.net

Udan ere, zure bidelagun

En verano, seguimos
acompañándote



UDAKO EUSKARA IKASTAROAK
2022 CURSOS DE EUSKERA EN VERANO

LIZARDI AEK EUSKALTEGIA

UZTAILA / ABUZTUA / IRAILA

UDAKO IKASTARO TRINKOAK

Hizkuntza eskakizunak prestatzeko ikastaroak
Goizez eta arratsaldez

Matrikula zabalik

Perro 1, 1 · 94 416 82 00 · 48005 BILBO · lizardi@aek.eus



EUSKALTEGIAK

Ikastaro trinkoak · Cursos intensivos
Etxe ondoan · Cerca de casa
Euskara ikasteko
Azterketak prestatzeko



ONLINE IKASTAROAK

A1, A2, B1, B2, C1, C2



2 ASTEKO BARNETEGIAK

Euskara-eskolak
Euskaraz biziitzeko
Azterketak prestatzeko



FAMILIA BARNETEGIAK

Euskara ikasteko
Seme-alabekin
euskaraz aritzeko